


Bertsoa eta dragoia bat eginik


Bihar, dragoia afaldu baino lehen, Oihane Enbeitak eta Beñat Gaztelurrutiak bertso-txikiteoan kantatuko dute; postrerako, berriz, Gozategi izango da

 Herriko hainbat tabernatan izango den bertso-poteoak zabalduko du aurten afarirako gonbita. Bosgarren urtez jarraian, musikak eta ikuskizunek lagunduko dituzte dragoi txuletak.

Txalaparta astinduak, abesbatza doinuak, Gozategi anaien erritmo alaiak eta arrasatearron txistek entzungai izango badira ere, bertsolaritza izango da aurten dragoi janean jaun eta jabe. Arratsaldean bertso-poteoa hasi eta gauera bitartean zortziko txiki eta handiek beteko dituzte herriko bazter guztiak.

Urtero legez, aurten ere bertsolaritzak oihartzun berezia izango du jaiegun hauetan. Jadanik tradizio bilakatu den ekitaldiak, dena dela, berrikuntza dezente ekarriko digu aurten; zenbait aldaketa eta baita gauza berriak ere, jaien antolaketan aritu diren zenbait gazte talde eta kultur elkarteri esker.

Horren adibide da orain arte Sebero Altube enparantzan egin izan den bertso-saioaren orde, herriko hainbat tabernatan egingo den bertso-poteo zaratatsua. «Lehen egiten zen bertso-saioarekin ez geunden guztiz gustura, jendea etorri etortzen bazen ere, ATBko kamerak zirela-eta bertsolarien eta entzuleen artean ez zela kontaktu handirik egoten», Itxaro Artola AEDko kidearen esanetan. Hala, bada, bertsolarien eta bertsozaleen arteko harreman eza edota urruntasun hori saihestu nahirik, aurten herritarrekin bertsotan egin eta tragu batzuk hartzeko parada izango dute bertsola-



ARTXIBOA



Gozategiren doinuekin dragoi txuleta ederrak janez ospatuko dute Arrasaten biharko eguna.

riek. Gainera, Sebero Altube plaza ez omen dago jaiei ongietorria egiteko egoera onenean eta, beraz, ekitaldi estatikoa izan beharrean, «dinamikoa, jendetsua eta zaratatsua» egingo da, «herriko bazter guztiak musika eta bertso bitartez alaitzeko».

Trikitixarekin lagunduriko poteoa Kondekuan jarritako txosnen gunean hasiko da, arratsaldeko 19:30ean, eta gaueko 21:00etan amaituko da, herriko taberna gehientsuenak bisitatu ostean. Ohi bezala, bertsolari gazteak izango dira herria zortziko txiki eta errimaz josiko dutenak; aurten Beñat Gaztelurrutia eta Oihane Enbeita

Bertso-poteoak
Sebero Altubeko
bertso saioa
ordezkatuko du,
bertsolari eta
herritarrak
hurbiltzeko asmoz

ariko dira. Beraz, bertsolari bizkaitarrak izango ditugu gure artean, «Bizkaiko Txapelketaren hurbiltasuna dela eta», AEDko kideak azaldu digunez. Aipatzekoa da, bestalde, bertso-poteoaren ondoren dragoi janea izango dela herriko enparan-

tzan eta bertan ere aipatu bertsolarien saio bat eskainiko dutela.

Bertsolaritzarekin jarraiki, ondorengo egunean ere, hilak 25, AEDko Bertso Eskolako 15 eta 17 urte bitarteko zazpi gaztek bertso-trama eskainiko dute, Asier Iriondo legazpiarraren gidaritzapean. Beraz, bertsotan egin eta gozatzeko parada bikaina eskainiko digute aurtengo jaiek.

Dragoi txuletak eta ikuskizunak

Esan bezala, arratsaldeko bertso-poteoaren ondoren, dragoi txuleta goxoak jateko aukera paregabea izango da,

herriko euskara elkarteko gazteei esker. «Aurreko urteetan bezalaxe, jende mordo espero dugu. Guk behintzat 500 pertsonarentzako txuletak hartu ditugu eta normalean ez da askorik sobra-tzen», azaldu digute bertoko kideek. Aurreko urteetan 400 pertsonatik gora joan izan dira herriko enparantzara, eta, arrakasta horren ondorioz, azken bost urteotan ohitura bilakatu da dragoi janea egitea.

«Hasieratik oso garbi ikusi zen bazkaria orde afarria antolatu behar zela; izan ere, eguerdi aldera dezenteko giroa izaten da, baina arratsalde eta ilunkera partean apenas egoten den jai giroa», esan digu Itxaro Artolak. Hala, bada, afari jendetsua egiteko asmoz, eta herriko «animaliarik» goxo eta kutunenaren okelarekin, dragoi janea antolatu eta orain arte iritsi zaigun tradizioa da.

Sekulako otorduaz gain, hainbat ikuskizun eskainiko dituzte aurten bertaratzen den guztiarentzat. Maier Urangak aurkezturik, Txalaparta Taldeko bi kidek ekingo diote jaialdiari eta, ondoren, goian aipatu bertsolari bizkaitar gazteez gain, Goikobalu Abesbatzak ere ekitaldi berezi bat eskainiko du. Bestalde, «jai giroak behera egin ez dezan eta jendea oraindik ere gehiago animatzeko», txiste lehiaketa antolatu dute. Azkenik, Gozategi anaiak ariko dira oholtza gainean afariak irauten duen bitartean eta baita ondoren ere.

Herri afarira joateko txartelak erosi nahi dituenak oraindik ere izango du beta; izan ere hilaren 24a arte izango dira salgai, ohiko lekuetan.

XARAMELA
taberna
Sanjoanetan
ondo pasa!
Loramendi, 1- Tf.: 943 79 61 64
ARRASATE

M
MEMESA
INDUSTRIA HORNIDURAK
FEMUR-OÑATI | ARRASATE | ARETXABALETA
Tel.: 943 71 80 80 | Tel.: 943 71 24 25 | Tel.: 943 71 24 11
Faxa: 943 71 80 45 | Faxa: 943 71 22 98 | Faxa: 943 71 21 19

SAN FRANTZISKO XABIER
IKASTOLA
Jai zoriontsuak
Mondragoetar guztioi!!

MUXIBAR
PIZZAK ☎ 943 79 11 25
Bizkaia etorbidea, 1